

2013ko EKAINAREN 18ko UDALBATZARRA
PLENO DE 18 DE JUNIO DE 2013

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDESA: M^a SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:

JON ABRIL OLAETXEA, FERNANDO BERASAIN GAINZA, NEKANE PEREZ IRAZABAL, GARAZI TABERNA TELLECHEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, UGAITZ ADO PRIETO, SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

Inor ez.

Tokia: BERAko Herriko Etxea
Eguna: 2013-06-18
Ordua: 19:30
Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA
Día: 18-06-2013
Hora: 19:30
Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

**2013.eko maiatzaren 14an egindako bilera-
ren akta ikusirik, aho batez, ONARTU
DUTE.**

Vista el acta de la sesión celebrada el día 14 de mayo de 2013, por unanimidad SE APRUEBA.

***Gai zerrendako 2. eta 3. puntuei dagokienez
Alkateak zera azaldu du:***

*Respecto a los puntos 2 y 3 del orden del día
la Alcaldesa comunica lo siguiente:*

2 puntu hauek Biomasa kontratuarekin lotuak daude baina azken berria da Nafarroako

Estos 2 puntos están relacionados con el contrato de Biomasa pero la última noticia es que

Gobernuak jarri behar zuen 150.000 euro, hiru ekitaldietan jarri beharrean aurten ordainduko duela dena. Beraz, horrela bada bihar onartuko omen dute, biomasaren inbertsioa egiteko ez dira beharrezkoak gai zerrendan dauden 2. eta 3. gai hauek onestea, zeren indarrean dagoen aurrekontuan inbertsio honetarako aurreikusten diren diru-sarreraz gain Nafarroako Gobernuak aurten ordainduko duen diru sarrerekin finantzatu da.

Hori dela eta, denak ados ageri dira gai zerrendako 2. eta 3. puntuan bertan behera uzteko.

4.- BERAKO MENDIETAN HILDAKOEN OROIMENEZ OROITARRIAK EDOTA XAFLAK PARATZEKO ARAUDIA.

Alkateak gaia azaldu du, Gipuzkoako Mendizale Federazioaren zirkular batetik atera dela iniziatiba eta erabaki proposamena irakurri du.

Jon Abrilek erran du arautegi hau hemendik aurrera jarri behar direnentzat aplikatuko dela eta orain arte daudenetaz interesatuekin egon behar dela gaia delikatu baina.

Idazkariak prozedura administratiboa azaldu du eta, horren ondoren, bozketa egin dute honako emaitzarekin:

Proposamenaren alde: 7 boto (4 Aralar, 2 EAJ/PNV eta 1 UPN).

Aurkako botoak: 0 boto

Abstentzioak: 4 (Bildukoak)

Beraz, honako erabakia hartu dute:

Azkeneko urteotan hildakoen oroimenez Berako mendietan zabaltzen ari diren oroitarriak, xaflak eta gisakoak nonahi agertzen ari direla ikusita, Berako Udalak gaia arautzeko beharra ikusi dio, mendia zaintzeko lehentasuna paratuz.

la cantidad de 150.000 euros que debe aportar el Gobierno de Navarra en vez de hacerlo en 3 ejercicios lo va a hacer este año. Por lo que si se confirma, al parecer la decisión la van a tomar mañana, para ejecutar la inversión de la biomasa no sería necesario aprobar los puntos 2 y 3 ya que se financiaría con los mayores ingresos aportados por el Gobierno de Navarra sobre el total previsto para este inversión en el presupuesto vigente.

Por lo expuesto, todas las concejalas y concejales muestran su conformidad en no tratar los puntos 2 y 3 del orden del día.

4.- REGULACIÓN DE LA COLOCACION EN LOS MONTES DE BERA DE PLACAS, RECORDATORIOS O SIMILARES EN RECUERDO DE PERSONAS FALLECIDAS.

La Alcaldesa explica el asunto, parte de una circular de la Federación Guipuzcoana de Montaña y lee la propuesta de acuerdo.

Jon Abril señala que se aplicaría a las que se coloquen de ahora en adelante y sobre las existentes habría que estar con los interesados dado lo delicado del tema.

La Secretaria explica el procedimiento administrativo a seguir, tras lo cual, se realiza la votación con el siguiente resultado:

A favor de la propuesta: 7 votos (4 Aralar, 2 EAJ/PNV y 1 UPN.)

En contra: 0 votos

Abstenciones: 4 (Bildu).

Por lo que adoptan el siguiente acuerdo:

Visto que en los últimos años, en recuerdo de personas fallecidas, está proliferando la colocación de placas, recordatorios y similares en los montes comunales de Bera, este Ayuntamiento estima necesaria su regulación prio-

Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 324., 325. eta 326. artikuluei jarraikiz.

Legeak eskatutako gehiengo osoz, ERABAKI DUTE:

1) Herri lurren Administrazio, defentsa, xedapen-egintzak eta aprobetxamendua erregulatzeko Ordenantza aldatzea, artikulua bat gehituz, hasiera batez onestea.

Artikulu honetan Berako herri mendietan hildakoen oroimenez holako elementu batzuk jartzeko arauak xedatuko dira, honako moduan:

- 89 bis artikulua:

1.- Inork mendian hildakoren bat gogora ekarri nahi duenean, Berako Udalak, interesatuak aitzinetik idatziz hala eskaturik, baimena eman ahal izanen dio Berako Udalak zehaztutako kokapen batean bertako zuhaitza landatzeko, beti ere, paisaian eragin kaltegarriarik sortu gabe.

Zuhaitza bera bakarrik landuko da, inolako xafla edo bertzelako elementu adierazgarriarik gabe, ez itxiturarik ere.

Landaketa lanak eskatzailearen kontura joanen dira.

2.- Alkatetzak izanen du baimen hau emateko eskumena eta, dagokion txosten teknikoaren ondoren, zehaztuko ditu landatzeko tokia eta zuhaitz mota.

3.- Ezin izanen dira gurutze, xaflak, oroitarriak edo gisako elementuak erabiliko. Gisa

rizando la obligación que tiene en el cuidado y defensa del monte.

De acuerdo con lo establecido en los artículos 324, 325 y 326 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local.

Con el quórum de mayoría absoluta, legalmente exigido, SE ACUERDA:

1) Aprobar inicialmente la modificación de la Ordenanza reguladora de la Administración, Actos de disposición, Defensa y Aprovechamiento de los Bienes Comunes de Bera añadiendo un artículo en el que se regule la colocación en los montes comunales de Bera de elementos recordatorios en recuerdo a personas fallecidas, con la siguiente redacción:

- Artículo 89 bis:

1.- Cuando se quiera recordar en el monte comunal a alguna persona fallecida, el Ayuntamiento de Bera podrá autorizar, previa solicitud por escrito de persona interesada, la plantación de un árbol de especie autóctona en el lugar señalado por el Ayuntamiento, sin que, en ningún caso, produzca ninguna afección al paisaje.

El árbol deberá crecer de forma natural y no se podrá colocar ninguna placa ni otro tipo de elemento similar, tampoco, proceder a su cierre.

Los trabajos de plantación serán a cargo del solicitante.

2.- La competencia para esta autorización corresponderá a Alcaldía quien, tras el oportuno informe técnico, señalará el lugar y la especie del árbol a plantar.

3.- No se podrán utilizarán cruces, placas de metal o piedra o elementos similares. Este tipo

horretako elementuak hilerrira mugatuko baitira.

2) Ordenantza hau jendaurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan espedientea aztertu eta erreklamazio, kexa eta oharra jartzeko aukera izan dezaten.

3) Erreklamazio, kexa edo oharrik aurkeztu ez da lehen aipatutako epean, hasierako onepen hau behin betiko bilakatuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

5.- BIDEEN INBENTARIOKO 5010. BIDEARI BAJA EMATEA ETA KATASTROAN ALDATZEA.

Alkateak azaldu du gaia eta, aho batez, erabaki hau hartu dute:

2012ko maiatzaren 28an Antton Daguerre Endarak erreklamazioa aurkeztu zuen non zioen inbentarioan dagoen 5010. bidea katastroan sartu dela nahiz eta jendaurreko epean berak jarritako erreklamazioan Udalak erantzun ziola ez zutela sartuko bidea publikoa ez baitzen.

Gai hau argitzeko Udal artxiboetan dauden zenbat dokumentazioa aztertu du, alegia, 1928 eta 1961eko katastro zaharrak, 1961eko katastro zaharreko fitxak, bideen inbentarioa, Antton Daguerren eskriturak eta zenbat pertsonen iritzia galdetu ere egin du.

Beste aldetik, aurrekoek gain, aipatu den erreklamazioaren erantzunean Udalak erran zion interesatuari *“dirudienez bide hau (5010) ez dela inoiz ere existitu, beraz, katastroa ez dela eramanen”*.

de elementos sólo se podrán colocar en el cementerio.

2) Exponer al público dicha ordenanza, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos, vecinas, interesados e interesadas legítimas puedan examinar el expediente y formular reclamaciones, reparos y observaciones.

3) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones en el plazo indicado en el punto anterior el acuerdo de aprobación inicial pasará a definitivo. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

5.- BAJA CAMINO 5010 DEL INVENTARIO DE CAMINOS Y MODIFICACIÓN CATASTRAL.

La Alcaldesa explica el asunto y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

El 28 de mayo de 2012 Antton Daguerre Endara presentó una reclamación en la que manifestaba que el camino 5010 del inventario se había pasado a catastro cuando en la reclamación por él presentada en la exposición pública se le había contestado que no se trasladaría a catastro por no ser un camino público.

Para el estudio de este asunto el Ayuntamiento ha examinado distinta documentación obrante en el archivo municipal, a saber, catastros antiguos de 1928 y 1961, fichas del catastro de 1961, inventario de caminos, escrituras de Antton Daguerre y ha preguntado, también, a diversas personas.

Por otro lado, a mayor abundamiento, en la contestación del Ayuntamiento a la reclamación antes indicada se le comunicó al interesado que *“parece ser que este camino nunca ha existido, por lo que no se reflejará en*

Beraz, arestian aipatu den dokumentazioan eta eginiko galderetan oinarrituz, Udalak uste du bide hori (5010) ez dela publikoa.

Hori dela eta, ERABAKI DUTE:

1) Berako Udal bideen inbentarioan 5010. bidea baja ematea bide hori ez delako inoiz ere bide publikoa izan.

2) Aipatu den bidea katastrotik kentzea eskatzea eta horren ondorioz, nahiz 15. poligonoko 143. eta 151. lur-sailak nahiz 136.-150.ak katastroan batzea.

3) Erabaki hau Nafarroako Gobernuaren Lurraldearen Aberastasunaren Zerbitzura bidaltzea behar diren ondorioetarako.

4) Erabaki hau interesatuari jakinaraztea.

6.- HAUR ESKOLEAN FINANTZAZIOARI BURUZKO MOZIOA.

Jose M. Portu zinegotziak mozioa irakurri du.

Nekane Perez zinegotziak bat egiten dutela mozioarekin dio baina kontuan hartu behar dela ere, 0-3 urtetako Haur Eskolak hezkuntza zikloaren barrenean dagoenez Nafarroako Gobernuak finantzatu beharko zuela.

Alkateak gaineratu du Nafarroako Gobernutik ez zutela deus ere abisatu Udala hitzarmenetik kanpo gelditu behar zela eta enteratu dela konturatzean beste urtetan bezala diru sarrera ez zela iristen.

Aho batez, onartu dute mozioa, honako

catastro”.

Por lo que, basándose en la documentación citada y en las averiguaciones practicadas, el Ayuntamiento cree que este camino (5010) no es público.

Por lo que, SE ACUERDA:

1) Dar de baja en el inventario de caminos municipal de Bera el camino 5010 por no haber sido nunca camino público.

2) Solicitar que el citado camino sea eliminado del catastro debiendo, en consecuencia, unificarse en el citado catastro tanto las fincas 143 y 151 como las 136 y 150 del polígono 15.

3) Remitir este acuerdo al Servicio de Riqueza Territorial del Gobierno de Navarra a los efectos oportunos.

4) Notificar este acuerdo al interesado.

6.- MOCIÓN SOBRE FINANCIACIÓN DE LAS ESCUELAS INFANTILES.

El concejal José M. Portu lee la moción.

La concejal Nekane Pérez manifiesta la conformidad con la moción pero añade que hay que tener en cuenta, también, que la Escuela infantil de 0 a 3 años está dentro del ciclo educativo por lo que es el Gobierno de Navarra quien debería financiarla.

La Alcaldesa añade que el Gobierno de Navarra no avisó nada de que se quedaba fuera del convenio y el Ayuntamiento se ha enterado al advertir que no llegaba la aportación como en años anteriores.

Por unanimidad, se aprueba la moción, con el siguiente texto:

testua izanik:

Udalen ardura den haur eskolen egoera ez da batere xamurra eta honek zuzenean Udalen finantziario iturrietan ere eragina du. Bada, Nafarroako Gobernuak maiatzaren 15ean burutu zuen saioan haur eskolen funtzionamendurako finantziarioaren inguruko erabakia hartu zuen. Horrela, 95 udal haur eskoletatik hitzarmenak 45 Udalekin (49 eskola) sinatuko dituzte haur eskola hauen funtzionamendurako diruz laguntzak zehaztuz. Beste 46 haur eskola, ordea, hitzarmen hauetatik kanpo geratu dira da eta ez dute oraindik zerbitzua eskaintzeko inolako finantziario aurrikusi, zama udalen bizkar gainean utziz eta hauek dituzten buruhauste ekonomikoak sakonduz. Gaurko egunean udal hauek ez dute Nafarroako Gobernutik inolako laguntzarik jaso eta ikasturtea amaitzean dago.

Honi, gainera, eraikinen egokitze lanen kostua gehitu behar diegu. Gobernuak eraikinek bete behar dituzten baldintzak ezartzen ditu eta egokitze lan horiei aurre egiteko ez du inolako diru-laguntza deialdirik ateratzen. Jakina da Udalek ez dutela obra hauei bakarrik aurre egiteko gaitasun ekonomikorik eta egokitze lanak egin behar izanez gero, ezinbestean Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza nahitaezkoa dela.

Egoera hau izanik, Udal honek honako akordio hau adostu du:

1.- Nafarroako Gobernuak hitzarmenetik kanpo geratu diren udalerrien haur eskolen funtzionamendurako behar den diru-laguntza partida berehala egokitu dezala. Udal hauek funtzionamendurako behar adinako diru-laguntza jasotzen ez badute, zerbitzu hau desagerrarazteko arriskuan uzten dute eta gutxienez hitzarmeneko

La situación de las escuelas infantiles de titularidad municipal en Navarra no es nada fácil y esto también repercute directamente en la financiación municipal. Así, El Gobierno de Navarra, en sesión celebrada el 15 de mayo, adoptó un acuerdo en relación a la financiación del funcionamiento de las escuelas infantiles. De este modo, de los 95 centros infantiles de titularidad municipal que existen actualmente en la Comunidad Foral suscribirá convenios de colaboración con 45 entidades locales (49 escuelas). Las restantes 46 escuelas infantiles, por el contrario, han quedado fuera de estos convenios de colaboración y todavía no se ha habilitado ni previsto ningún tipo de financiación para ofrecer este servicio, echando el peso de la carga que supone esta situación a los ayuntamientos y profundizando sus problemas económicos. A día de hoy, estas entidades locales no han recibido ningún tipo de ayuda por parte del Gobierno de Navarra y el curso escolar está a punto de finalizar.

A esto, además, hay que sumarle el importe de las inversiones para la adecuación de los centros. El Gobierno de Navarra establece las condiciones que tienen que cumplir los centros pero no aprueba ninguna convocatoria de subvenciones para hacer frente a las inversiones. Es sabido que los ayuntamientos no tienen capacidad para hacer frente a estas obras y que en caso de querer ejecutar las obras de adecuación de los centros, es necesaria la convocatoria de ayudas por parte del Gobierno de Navarra.

Por todo ello, y ante esta situación, este Ayuntamiento solicita:

1.- Que el Gobierno de Navarra habilite una partida para el funcionamiento de las escuelas municipales de titularidad municipal que han quedado fuera de los convenios aprobados por el Departamento de Educación. En caso de que estas entidades locales no perciban una ayuda financiera suficiente se deja al borde de la desaparición el funcionamiento de los

baldintza berdinak betez dirulaguntzak bideratu ditzatela eskatzen du Berako Udalak.

2.- Nafarroako Gobernuak haur eskolen eraikinak egokitzeko dekretuan ezartzen diren baldintzak bete ahal izateko obretarako diru-laguntza deialdiak onartu eta udalei inbertsioak egin ahal izateko finantziarioa bermatu dezala eskatzea.

3.- Udalak mozio hau Nafarroako Gobernuari, Nafarroako Udalen eta Kontzejuen Federazioari eta hedabideei bidaliko die.

centros y el Ayuntamiento de Bera solicita que se canalicen ayudas cumpliendo como mínimo las mismas condiciones que se establecen en los convenios de colaboración.

2.- Que el Gobierno de Navarra apruebe una convocatoria de ayudas para la adecuación de los centros a las condiciones que se establecen en el decreto y con el fin de garantizar la financiación para la ejecución de las inversiones por las entidades locales.

3.- Enviar esta moción al Gobierno de Navarra, a la Federación Navarra de Municipios y Concejos, y a los medios de comunicación.

7.- LOMCE-ARI BURUZKO MOZIOA

Nekane Perez zinegotziak mozioaren edukia azaldu eta erabakiaren puntuak irakurri ditu. Honen ondoren, bozketa eginda, hauxe izan da emaitza:

*Mozioaren aldeko botoak: 10 boto (4 Aralar, 4 Bildu eta 2 EAJ/PNV).
Aurkako botoak: 0 boto
Abstentzioak: 1 (UPN).*

Beraz, mozioa onartu eta hauxe da testua:

7.- MOCIÓN SOBRE LA LOMCE.

La concejal Nekane Pérez explica el contenido de la moción y lee los puntos del acuerdo. Tras ello, se realiza la votación, resultando lo siguiente:

*Votos a favor de la moción: 10 votos (4 Aralar, 4 Bildu y 2 EAJ/PNV).
Votos en contra: 0 votos.
Abstenciones: 1 (UPN).*

Por lo que se aprueba la moción con el siguiente texto:

ZIOEN AZALPENA

Badira hilabete batzuk Nafarroako Parlamentuak adierazpen instituzional baten bidez errefusatu zuela Espainiako Gobernuak abian jarri nahi zuen hezkuntza erreforma, LOMCE, alegia.

Nafar Gobernuak erreforma honekiko adierazitako jarrera epela ikusita eta Madrilgo Kongresuan proiektua behin aurkeztuta, Udal honek bere jarrera adierazi nahi du eta Nafar Gobernuari iritzi hori aintzat har dezala eta erreformari aurre egin diezaiola eskatzea beharrezkoa dela deritzogu.

Izan ere, proiektu hau gure eskumenei egiten zaien beste eraso larri bat da, gure ustez. Hasteko, gure beharretatik, gure errealitate sozial eta linguistikotik erabat urrun dagoen proiektua da. Denontzako kafea ezarri nahi du Estatuak, ikuspegi erabat uniformizatzailez, gure errealitatea eta beharrak inolaz ere aintzat hartu gabe.

Ildo horretatik, eskola porrotari aurre egiteko eta itxuraz hezkuntzaren kalitatea hobetzeko aitzakia darabil, eskuduntza murrizketa eta zentralismoan areagotzeko asmoz.

Ikusi besterik ez dago curriculumaren izaera zentralizatzailean sakontzeko planteamendua. Eskoletan landu beharreko derrigorrezko etapetako eta batxilergoko irakasgai ardatzen edukiaren %50 estatuak ezartzen du, berriro ere. Baina horretaz gain, etapa amaieretan egin beharreko ebaluazio probak ezartzen ditu. Curriculum erabat baldintzatzeko asmoa duten frogak dira, Estatuak diseinatutakoak, erkidego guztietarako berdinak, eta kanpoko irakasleek zuzenduta.

Froga hauek ikasleen bereizkeria goiztiarra eta oztopo lasterketa sustatzen dute. Eta, horretaz gain, ikastetxeen eta irakasleen lanaren autonomian eskusartze larria da, ikasleen oinarrizko titulazioa ere froga horren menpe uzten baita.

Bestetik, hezkuntzaren kontzepzioan ideologikoki atzerakada sakona da, ikuspegi neoliberalak gailentzen baita. Irizpide pedagogiko eta integratzaileak alde batera uzten ditu. Ekitatearen aurkako proiektua da, zalantzarik gabe, eta ikasleen aniztasuna ez du inolaz ere aintzat hartzen.

Aitzitik, hezkuntzaren merkantilizazioa bultzatzen du. Izan ere, erreforma honen helburua hezkuntza eta ikasleak ekonomiaren, enpresen eta merkatuen beharren baitara moldatzea da. “Enpleagarritasuna” hobetzeko aitzakiaz, ikasleen aukera berdintasuna mugatzen du, ikasleen bereizkeria goiztiarra sustatuz eta “lehen” mailako eta “bigarren” mailako ikasleak sortzeko arriskua areagotuz.

Horren baitan aldatzen da DBHko 4. ikasturtea, moldatzen da Lanbide Heziketa eta sortzen da “prestakuntza eta ikasketa kontratua”. Lanbide Heziketa dualaren planteamendua ere eskulan merkea sortzeko bide arriskutsua iruditzen zaigu, enpresa jakin batzuentzako mesede, ikasleentzat baino.

Edukiei dagokionez, adoktrinamendu kutsu sakona dauka proiektuak, erabat ideologizantea da. Ikusi besterik ez dago sektore ultrakatolikoak eta Eliza Katolikoa asebetetzeko asmoz, sexu bereizkeria egiten duten ikastetxeei edo erlijioaren irakasgaiari ematen zaien trataera, edo “Herritartasunerako Hezkuntza” ezabatu izana.

Azkenik, benetan larria iruditzen zaigun beste eraso bat, bertako hizkuntzari, euskarari, emandako trataera da. Proiektuak duen helburua irakaskuntzan gaztelania zabaltzea eta hizkuntza propioen garrantzia eta presentzia murriztea da. Eta, zalantzarik gabe, murgiltze eredia kolokan jartzen du.

Izan ere, proiektuaren baitan, gaztelania eta ingelesa enborreko irakasgaiak izango dira, baina, aldiz, euskara ez, espezialitatekoa izango baita. Horrek esan nahi du ez dela ebaluagarria izanen etapa amaieretako frogetan, ezta DBHko oinarrizko titulazioa lortzeko frogan ere.

Proiektu hau, hortaz, inboluzio eta eskubide urraketa berri bat da, eta erantzun tinkoa eman behar diogulakoan gaude. Eta, aldi berean, geure errealitateari eta beharrei erantzungo dien hezkuntza politika eta proiektua aldarrikatzea ezinbestekoa iruditzen zaigu.

Honengatik guztiarengatik aurkezten dugu honako

EBAZPEN PROPOSAMENA

1. Berako Udalak LOMCerekiko bere desadostasun osoa adierazi eta berau errefusatu egiten du. Ondorioz, Espainiako Gobernuak premiatzen du proiektua bertan behera utz dezan.
2. Berako Udalak Nafar Gobernuak premiatzen du nafar herritarren hezkuntza eta hizkuntza eskubideak modu aktiboan defenda dituzan LOMCeren inposaketaren aurrean.

3. Berako Udalak Nafar Gobernu premiatzen du LOMCE onartzen bada, gure eskumenak baliatu eta Nafarroan ezar ez dadin bide guztiak urra ditzan

8.- “PUNTU LILA” MOZIOA.

Nekane Perez zinegotziak gaia azaldu eta erabakien puntuak irakurri ondoren, aho batez, onartu dute mozioa, hona hemen testua:

8.- MOCIÓN “PUNTO LILA”.

La concejal Nekane Pérez explica la moción y lee los puntos del acuerdo, tras lo cual, por unanimidad, la aprueban con el siguiente texto:

PUNTU LILA MOZIOA

ZIOA

Sinboloz inguratuta gaudela, batzuk edonon daude (adibidez, trafikoa arautzen dutenak), eta erraz ezagutzen ditugu, hizkuntza partekatuaren zati direlako; baina bereziak ere badaude, talde jakin batek erabiltzen dituenak, sinboloaren bitartez identifikatzeko eta komunikatzeko. Trafikoko hizkuntzaz gain badira beste adibide batzuk, hizkuntza informatikoa, sms-en hizkuntza, bakeko usoa, aniztasunaren ortzadarra, ekialdeko filosofian yin eta yanen dualtasuna... gaur bereziki ekarri nahi dugu bat:



EMAKUMEEN AURKAKO
INDARKERIARI EZ
NO A LA VIOLENCIA
CONTRA LAS MUJERES

Sinbologia feminista

Mugimendu feministak ere, jaio zenetik, identifikatzeko sinboloak sortu izan ditu. Ezagunetarikoak Greziako mitologiako jainkoen irudia erabiltzen du. Sinbolo guztietan biribila agertzen da, barruan identifikatzeko markaren batekin. Behean gurutzea duen biribila Afroditararen sinboloa da, erro-matarren Venus, maitasunaren eta edertasunaren Jainkosa, eta feminitatearen sinboloa da. Venus sinboloak emakumea irudikatzen du, eta mugimendu feministak bere egin eta era askotara erabiltzen du. Sinbolo horrezaz gain, mugimendu feministak badu beste ikur bat ere: kolore morea edo lila. Mugimendu feministak zergatik erabiltzen duen kolore hori azaltzeko, bertsio ugari daude.

Horretariko batek Cotton izeneko ehungintza lantegi bateko emakumeen borrokari lotzen dio, New Yorken. 1908ko martxoan lantegiko emakumeek greba hasi zuten, lanjarduna 10 ordukoa izateko eta emakumeen laneko eskubideak bultzatzeko. Esaten denez, empresa jabeek su eman zioten lantegiari eta emakumeak kiskalduta hil ziren. Ezaguna da, baita ere, lantegian egiten zen ehunaren kolorea morea zela dion bertsioa, eta horixe da emakumeen eskubideen borrokari lotzeko arrazoia.

Bestalde, izan daiteke kolore morea emakume horien odola eta egiten zuten ehunaren nahastea izatea; beste batzuek diote kiskaldutako gorpuak estaltzeko zeuden ehun bakarrak more kolorekoak zirela.

Bestelako azalpen batek dio feministek gainditu egin nahi izan dituztela neskei eta mutilei lotutako koloreak (arrosa eta urdina). Horretarako, bi koloreen nahastea proposatu zuten (lila), emakumeak eta gizonak desberdintzen ez duen gizartearen helburua islatzeko.

Orain dela urte batzuk, Euskal Herriko udalerrien sareak, BERDINSAREAK, Indarkeriaren aurkako eta berdintasunaren aldeko Puntu Lila sinboloa onartu zuen. Lila da, feminismoaren kolorea ere lila delako, eta puntua da, sinbolo erraza eta adierazle guztiekin: puntu askok osatutako puntua, amaitu dela esateko, “eta puntu”.

Gure herriko bestak gero eta hurbilago daude eta aukera paregabea iruditzen zaigu sinbolo hau zabaltzeko. Martxan jarriko dugu kanpaina indakeria sexistaren aurrean nola jokatu jakin dezagun, horretarako liburuxkak banatuko dira, eta informazio puntu bat izanen dugu bestetan, gaur egungo teknologi berriak ere probetuko ditugu ahalik eta jende gehien ukitu ahal izateko.

Puntu lila jarritz, jakinarazi nahi dugun mezua, hau da:

- * “Puntu Lila” ikusten dugun bakoitzean oroitzea indakeria sexista ezabatzeko borroka aurrera doala.
- * Sinbolo eta ikono hori era estrategikoan erabiltzea, aliantzak eta konpromisoak sortuz.
- * Indakeria sexistaren aurkako borrokan pertsonen, taldeen eta entitateen lana aitortzea.
- * “Puntu Lila” ikusi ahal izatea normalean maskulinoetat hartzen diren eremuetan.

Arestian adierazitako guztiagatik, “Berdintasun Batzordeak” honako hau proposatu nahi du:

EBAZPEN PROPOSAMENA

- 1- Udal honek adierazten du bortizkeria sexista, bere adierazpen anitzetan, intentsitate gehiago edo gutxiagorekin bere egunerokoan neska eta emakume guztien gain eragina duen arazo estruktural bat dela. Emakumeen aurkako edozein bortizkeriaren oinarrian, ez bakarrik fisikoa, emakumeak eta gizonak sozietatean leku desberdinetan kokatzen dituen patriarkatua dagoela desberdintasun anitzetan azaltzen delarik: lan eta soldata desberdinak, etxeko-lan eta zainketa-lanen banaketa desberdina, aisialdiaren gozamen desberdina, eta abar.
- 2- Udal honek puntu lila indarkeriaren kontra eta berdintasunaren aldekoa sinbolotzat onartzen du aurrean aipatu diren mezuak zabaldu nahian.
- 3- Udalak, bere aldetik, puntu lilak eraikin publiko guztietan modu iraunkorrean jarriko ditu: udaletxe sarreran, igerilekuan, kiroldegian, pilotalekuan, kultur etxean... Era berean, animatzen ditu herriko elkarte, erakunde, denda, taberna eta abarretara, euren lokaletan ere jar dezaten.

**9.- BANDOAK ETA ALKATEAREN
EBAZPENAK.-**

**9.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE AL-
CALDÍA.-**

Honako bando eta Alkatetzaren ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:

- 1) Bandoak: 18/2013tik 21/2013ra.
- 2) Ebazpenak: 2013ko maiatzaren 9ko 88. ebazpenetik 2013ko ekainaren 10eko 121.era arte.

Idazkariak aipatu du gaur Garazi Taberna zinegotziak e-postaz mozio bat “Berako Bestatan Herriko Preso eta Iheslari Politikoei eta haien senidei elkartasuna adierazteari buruzkoa”, bidali diola gai zerrendatik kanpo sartzeko. Beraz, bozkatu behar da bere urgentzia tratatu baino lehen.

Aralar taldearen aldetik diote gelditu zirela gai hori tratatu baino lehen adostu behar zutela eta horretarako bilera egitea saiatu direla.

Garazi Taberna zinegotziak dio mozioa dela Udalak gaiari buruz konpromisoa hartzeko besterik ez, Pleno batean oinarri batzuk adosteko.

Aralar taldearen aldetik berriz erran dute gai guztiaz solasteko bilera bat egin behar dela.

Bildu taldeak dio premia dela Bestetako programa inprimategira bidali baino lehenago jakin behar dela.

Horren ondoren, bilera bat egiteko zita finkatu dute eta mozioa ez dute tratatu.

Quedan enteradas y enterados de los siguientes bandos y resoluciones de Alcaldía:

- 1) Bandoak: del 18/2013 al 21/2013.
- 2) Resoluciones: De la resolución nº 88 de 9 de mayo de 2013 a la nº 121 de 10 de junio de 2013.

La Secretaria informa que la concejal Garazi Taberna hoy le ha remitido por correo electrónico una moción sobre solidaridad con los presos y exiliados políticos y sus familiares en las Fiestas de Bera por lo que si se va a tratar deberá votarse previamente la urgencia de la moción.

Desde el grupo de Aralar manifiestan que se había quedado en acordar algo antes de tratar el tema y para eso se había intentado celebrar una reunión.

La concejal Garazi Taberna dice que la moción es para acordar unas bases en el Pleno, simplemente, para que el Ayuntamiento adopte un compromiso sobre el tema.

Desde el grupo de Aralar insisten en celebrar una reunión para hablar de todos los temas al respecto.

Desde Bildu señalan que hay urgencia porque hay que saberlo antes de enviar el programa de fiestas a la imprenta.

Tras lo anterior, fijan una reunión y no se trata la moción.

10.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEEN KONTROLA.

10.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

Ez dira burutu.

No se producen.

Honen ondotik, Alkateak zera aipatu du:

Kontuhartzaitzaren lanpostuen izendapena jakinarazi dute eta udal kontuhartzaileak, Iñigo Urdangarinek, Mendabiako Udalean lortu du lanpostua, beraz, hainbeste urte Udal honetan lan egonda zoriondu eta agurra egitea, baita ere, toki berrian zorte ona izan dezan desatzea proposatu du eta gainontzeko zinegotzi guztiak ados agertu dira.

Lanpostuak uztailaren leian beteko dira.

Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 20:45etan.

Seguidamente, la Alcaldesa comenta que los nombramientos de los puestos de Intervención ya se han realizado y el interventor del Ayuntamiento Iñigo Urdangarin ha obtenido plaza en el Ayuntamiento de Mendavia, por lo que propone trasladarle la felicitación y despedida del Ayuntamiento tras tantos años de trabajo en el mismo y desearle buena suerte en el nuevo puesto a lo que el resto de concejales y concejales muestran su conformidad.

Los puestos se van a cubrir el 1 de Julio.

No habiendo más asuntos, la Alcaldesa levanta la sesión a las 20:45 horas.

O.E. ALKATEA/ V.B. LA ALCALDESA
M^a Sol M. Taberna Iratzoki

IDAZKARIA/ LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta